

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Zelula amak



Igor Estankona



Poemak

MIROSLAV HOLUB

Susa, 2016

Zelula amak izaki batean propioak diren beste edozein zelula mota ekoitzi ditzaketen zelulak dira: Miroslav Holuben berba hauek zientziatik datoz eta lirismoa darie, poesia bihurtu dira.

Zelula amen berezitasuneko bat gorputzean zein andui batean denbora mugagabez mantendu daitezkeela da: liburua irakurri berritan ez nintzen ohartu; beste ikuspuntu bat iradoki dit poesiaren materialei buruz.

Karlos Cid Abasolok hautatu eta itzuli baititu Miroslav Holub (Plzeň, 1923 – Praga, 1998) idazle txekiarraren poema zenbait, Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaietarako. 1990ean berak eta Šárka Grauovák itzulia zuten Catedra argitaletxe espainiarrean immunologoaren poema antologia bat.

Holub lehen aldiz hartu dut beraz, eta begitandu zait zientzia poema bihurtua, edo zientziak poesiatik daukanaren analisisa. Horregatik ironiko bihurtzen da halabeharrez, diziplinen nahasteak badauka eta umoretik zer edo zer, esperimentuaren poza dario: “Hemen dautza/ pobreen hizkuntzak,/ jeneralen birrikak,/ salatarien begiak,/ martirien larruak, // kristaltxo mikroskopikoen/ absolutuan”. Miroslav Holubek gaixotasun fisikoak bihurtzen ditu maiz humanitatearen izurrien metafora, eta kapaz da geometriatik ateratzeko lezio bitalak: “Bi lerro paralelok/ beti egiten dute topo/ geure eskuaz marrazten baditugu. // Kontu bakarra da/ ea gure aurrean/ edo gure atzean. // Ea urrutiko tren hura/ aurrerantz doan/ edo atzerantz”.

Urruna eta axolagabea eman dezake, baina ulertuko duzu, irakurle, bere karga, liburuari aukera ematen badiozu. *Bohemioaren*

poemak *Science* aldizkarirako ziren, mikrobiologiaren dihardute, eulia, gorotza, hostoaren nerbioa dute aztergai. Penguinek ekarri zuen, altzairuzko errezelaren azpitik, ingeles-hiztunen gustua egiteko, hirurogeigarren hamarkadan. Txekoslovakia bere blokearen diziplinara itzularazi zuen Pragako Udaberriaren ostean, inguruan ez ikusiarena egin zioten askok.

Gurean Maite Gonzalez Esnalek ekarritako oihartzun batzuk baino ez daude bereak, 1991ko bosgarren *Hegats* aldizkarian. Orain bai, orain justizia zientifikoa egin zaio Miroslav Holubi. Ez da poeta bat bereziki hunkitu nauena, baina bai interesgarria eta freskoa, letra larriz idatzi ohi den historia eta zapal dutako jende anonimoena maisuki nahastu dakiena, halako enpatia unibertsal bat sortuz den guztiarekiko: “Alsazian,/ 1885eko uztailaren seian/ txakur amorratu batek/ bederatzi urteko Joseph Meister lurrera bota/ eta hamalau aldiz zuen ausiki”. ■

Txekiar Errepublikako idazle Miroslav Holub.

